

P03 - Inspira STEAM

Neskengan bokazio zientifiko-teknologikoa sustatzeko proiektu aitzindaria da Inspira STEAM, eta STEAM arloko emakume eta gizon profesionalak egindako sentsibilizazio- eta orientazio-ekintzak ditu oinarri. Horri esker, taldeko aholkularitza lehen aldiz erabiliko da lehen hezkuntzako 6. mailako eta bigarren hezkuntzako 1. mailako ikasleekin.

Ikasurtea
6. LH
1. DBH

Data
2024ko urtarrila - apirila

Lantzen diren irakasgaiak
Lanbide orientazioa

Hizkuntza
Euskara, gaztelera edo ingelesa
(Prestasunaren arabera)

Irismen geografikoa
Araba
Bizkaia
Gipuzkoa
(Prestasunaren arabera)

Erakunde sustatzailea
Deustuko Unibertsitatea

Helburuak

STEAM arloko emakumeak (historiakoak, egungoak eta hurbilekoak) ikusaraztea eta balioestea, eta hurbileko erreferente berriak bultzatzea.

Neskek eta mutiek STEAM ikasketak eta lanbideak ezagutzea.


Aniztasuna baloratzea.

Estereotipoak ezagutaraztea, haien erabakiak baldintza ez ditzaten.

Zer ikasten dute ikasleek?

- STEAMak zer diren, gure inguruan nola aurkitzen ditugun, zer garrantzi duten gaur egun eta etorkizunean.
- STEAM arloko genero-estereotipoak. Horiek identifikatzen ikastea, STEAM estereotipoak ezagutzea (bereziki emakumei eragiten dietenak) eta haietatik askatzea.
- STEAM lanbideak. Pertsonak egin ditzaketen askotariko jarduerak positiboki baloratzea, eta estereotiporik gabeko lan-egoerak eta STEAM arloko profesionalen lan-esparru eta -sektore askotarikoak ezagutzera ematea.
- STEAM arloko emakumeak ezagutaraztea (historiakoak eta egungoak, ezagunak eta hurbilekoak), haien lorpenak eta ekarpenak baloratzea, emakume horiek ikusezin bihurtzeko arrazoiak ulertzea.
- STEAM begirada zabaltzea. STEAM lanbideen eremuez jabetzea, eta behar diren trebetasunei buruz hausnartzea, teknikoetatik harago. Taldeetan eta gure harremanetan aniztasunak dakarren aberastasuna baloratzea.

Garapena



Curriculumaren edukiak

Inspira STEAM curriculumetik kanpoko ekimena da.

Baliabideak

Ikastetxeak lan-koadernoaren kopia bat eman behar dio ikasle bakoitzari.

WEB <https://inspirasteam.net/>